

# PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ SEXISTARAKO KODE DEONTOLOGIKOA ETA AUTOERREGULAZIOKOA



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaureritzako erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIDA

32



EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA  
ERABILTZEKO AHOLKU BATZORDEA - BEGIRA

VITORIA - GASTEIZ 2016

**P**  
**UBLIZITATE**  
**ETA KOMUNIKAZIO**  
**EZ SEXISTARAKO**  
**KODE DEONTOLOGIKOA**  
**ETA AUTOERREGULAZIOKOA**

**IZENBURUA:** Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa

**EGILEA:** Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

**DISEINU GRAFIKOA  
ETA MAKETAZIOA:** Composiciones RALI, S.A.

**DATA:** 2016ko uztaila

**DESKRIBATZAILEAK:** Sexismoa, publizitatea, komunikazioa, emakumeen aurkako indarkeria, kode deontologikoa, autoerregulazioa, dekalogoak.

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	<b>7</b>
<b>SARRERA</b> .....	<b>11</b>
<b>PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ SEXISTARAKO KODE DEONTOLOGIKOA ETA AUTOERREGULAZIOKOA</b> .....	<b>15</b>
<b>1. ERANSKINA. PUBLIZITATE EZ SEXISTARAKO DEKALOGOIA</b> .....	<b>21</b>
1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ROLA ETA IKUSGAITASUNA .....	23
2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN IKUSGAITASUNA .....	25
3. DIBERTSITATEA ETA DISKRIMINAZIO ANIZKOITZAK .....	26
<b>2. ERANSKINA. KOMUNIKAZIO EZ SEXISTARAKO DEKALOGOIA</b> .....	<b>27</b>
1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ROLA .....	29
2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN IKUSGAITASUNA .....	31
3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN GORPUTZAETA IRUDIA .....	31
4. HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ SEXISTAK .....	32
5. GENERO-IKUSPEGIA ETA IKUSPEGI INKLUSIBOA .....	33
<b>3. ERANSKINA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INFORMAZIO-TRATAMENDURAKO DEKALOGOIA</b> .....	<b>35</b>
<b>HITZAURREA</b> .....	<b>37</b>
1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INFORMAZIO-TRATAMENDUA .....	39





# AURKEZPENA







Publizitateak eta komunikazioak eragin handia izaten dute errealitateaz daukagun pertzepzioan. Irudi eta mezu jakin batzuk behin eta berriz errepikatzeak hainbat baliyo, portaera-eredu eta bizitza-estiloren onarpen akritikoa eragiten dute neurri handi batean, eta, hortaz, komunikazioak eta publizitateak, beste eragile sozializatzaile batzuekin batera, *errealitatea eraikitzen dutela* esan liteke.

Nahiz eta berdintasun-kontuetan lortutako aurrerapenek esparru horietan ere ondorioak izan dituzten eta agentzia eta komunikabide batzuen esperientzia eta jardunbide egoki gero eta gehiago ezagutzen ditugun, publizitateak eta komunikazioak oraindik ere elementu sexisten markak dituzte gure gizartean, eta elementu horiek, azkenean, emakumeentzako eta gizonentzako rol baztertzailak gizarteratzen eta natural bihurtzen dituzte. Elementu horiekin, askotan, sexuaren arabera giza duintasun handiko edo txikikotzat jotzen dira pertsonak eta emakumeenganako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo bultzatu ere egiten da.

Gauzak horrela, eduki mediatikoek emakumea ez gaizki tratatzea, ez umiltzea edo mendekotzat ez aurkeztea da BEGIRA batzordearen helburu nagusia, eta, era berean, emakumez eta gizonez ematen den irudia bat etortzea lortu nahi dugun errealitate sozialarekin.

BEGIRA aholku-batzorde bat da, Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuari atxikita dagoena; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritakoari erantzuten dio eta 360/2013 Dekretuaren bidez dago arautua. Hauxe da bere funtsezko zereginetako bat: komunikabide publikoek ematen dituzten edukietarako kode etikoak daudela sustatzea eta kode etiko horien aplikazioa bultzatzea, eta, horrez gain, komunikabide pribatuekin akordioak egitea sustatzea, haien jarduna emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipiora egokitzeko.

Ildo horretan, lankidetzeta-prozesu bat diseinatzea eta martxan jartzea bultzatu du Emakunde, Euskadiko publizitate-agentzia eta komunikabideekin batera deontologia- eta autorregulazio-kode bat adosteko. Kode horrek publizitaterako, kazetaritza-rako eta emakumeen kontrako indarkeriaren tratamendurako dekalogoak dauzka. *Publizitate eta Komunikazio Ez Sexistarako Kode Deontologikoa eta Autoerregulazioak* dokumentuak eta hori gauzatzeko dekalogoek, hemen aurkezten


dizkizuegunek, berdintasunari lotutako balio etikoetan oinarritutako irizpideak biltzen dituzte; hain zuzen ere, gure erkidegoan lan-jarduna behar bezala gauzatu nahi dutenek adosten, formulatzen eta bere egiten dituzten irizpideak.

Espero dut agentziek, komunikabideek eta administrazio publikoak elkarrekin egindako prozesuari bukaera ematen dion argitalpen hau tresna baliagarria izatea komunikabide eta agentziek arlo honetan duten protagonismoa aintzatesteko eta haien inplikazio-maila nabarmentzeko, legea betetzeko eta iragarki eta komunikabideek benetan islatzeko berdintasun handiagoko gizarte bateranzko «balio-aldaketa» sustatuz errealitateak izan duen bilakaera.

Prozesuan zehar egindako atazetan zuzenean edo zeharka parte hartu edo ekarpenak egin dituzten pertsona eta erakunde guztiei zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiet egin duten lanarengatik, eta bereziki zoriondu eta eskertu nahi ditut kodearen eta katalogoen prestaketan urte eta erdi baino gehiagoz elkarlanean arituz inplikatu diren komunikabide eta agentziak; argitalpen honen sarreran azaltzen dira. Haientzat nire aintzatespena, haien lan on, erantzukizun sozial eta bikaintasunarengatik. Egin dituzten ekarpenekin sortu dira aipatutako tresnak, eta tresna horiek berdintasun handiagoa duen eta bidezkoagoa den gizarte eraikitzen lagunduko dute, zalantzarik gabe.



Izaskun Landaida Larizgoitia  
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria



**S**ARRERA



Publizitate-agentziak eta komunikabideak sozializatorako eta balioen transmisiorako eta aldaketarako eragile garrantzitsuak dira gure gizartean, funtsezkoak berdintasun-maila handiagoko gizarte baterantz doan iritzi publikoa sortzeko.

Esparru horretan, BEGIRA-Publizitate eta komunikazio ez sexista erabiltzeko Aholku Batzordea, bere eginkizunak betez, komunikabideekin eta publizitate-agentziekin elkarlanean, Euskadin publizitate eta komunikazio ez sexista egiteko kode deontologiko eta autoerregulazioko bat sortzeko lan-prozesua bultzatzen ari da orain urtebetetik.

Prozesu horretan parte-hartze aktiboa izan dute komunikazioaren eta publizitatearen arloko 21 erakundek:

1. Arista
2. Bizkaiko Publizitate Agentzien Elkartea
3. Euskal Kazetarien Elkartea
4. Aurman
5. Berria
6. Kazetarien Euskal Elkargoa
7. Cope
8. Deia
9. Diario vasco
10. Dimensión
11. Eitb
12. Europa Press
13. Gara
14. MBN Comunicación
15. Onda cero
16. Onda vasca
17. Ser
18. Trupp Publicidad
19. Radiotelevisión Española
20. Vasco Press
21. Xabide

Gainera, kontrasterako hasierako prozesu bati ekin zaio honako erakunde hauekin:

1. Adclick
2. Begitu Aldizkaria
3. Bell Comunicación
4. BLOK Comunicación Estratégica
5. Bizkaia Irratia
6. Bostnan
7. Comunicat
8. Focuzz
9. Hamaika Telebista
10. Hiruka
11. Hitza Egunkaria
12. Imagine Grupo
13. Labox
14. Momik
15. Tokikom
16. Urumeako Kronika



**P**

**UBLIZITATE  
ETA KOMUNIKAZIO  
EZ SEXISTARAKO  
KODE DEONTOLOGIKOA  
ETA AUTOERREGULAZIOKOA**





## **I. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO LEGEEKIKO BEGIRUNEA**

Komunikazioak (bai publizitatekoak, bai kazetaritzakoak) begirunea gorde behar die indarreko legeei, bereziki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko otsailaren 18ko 4/2005 Legean aintzatesten diren balio, eskubide eta printzipioei (lege horrek, hain zuzen, debekatzen du «pertsonek, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen publizitate-iragarki oro egin, eman edo erakustea, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere»); halaber, Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikokoei eta Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1998 Lege Orokorrekoei (non legez kanpoko gisa sailkatzen baita pertsonaren duintasunaren aurka doan publizitatea, bereziki, haultzaroari, gaztaroari eta emakumeari dagokienez).

## **II. PUBLIZITATE NAHIZ KAZETARITZAREN PRINTZIBIO DEONTOLOGIKOEI ETA AUTOERREGULAZIOKOEI BEGIRUNEA GORDETZEA ETA HORIETARA EGOKITZEA**

Zehaztasuna, egiaren bilaketa eta inpartzialtasuna kazetaritzaren printzipioetako batzuk dira. Komunikazio ez sexistaren ikuspuntutik, zera esan nahi du horrek: emakumeen aurkako indarkerian sentsazionalismoa errotik kentzeko konpromisoa, ez arriskaraztea informazioen zehaztasuna aurreiritzi eta estereotipo sexistak birsortuz, ez erabiltzea emakumeen edo gizonen gorputza audientzia gehiagotzeko erakargarri gisa eta ikuspegi inklusiboen alde egitea emakume eta gizonen errealitate estereotipatuak azaltzen dituzten ikuspuntu partzialak erabili orde.

Publizitatearen esparruko kode etikoetan honako konpromiso hauek jaso dira, besteak beste: ez iradokitzea diskriminazio-inguruabarrak, sexu- diskriminazioa barne, eta, merkataritza-helburuak eta zilegi den eragin-nahia gorderik betiere, emakumeen eta gizonen berdintasuna garatzeko aukerak mugatuko ez dituen diskurtso bat sortzea.

## **III. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA**

Publizitate-agentziek eta komunikabideek eragin garrantzitsua dute imajinario kolektiboan eta iritzi publikoan. Horregatik, beren gain hartu behar dute gizarte-arekiko duten erantzukizuna, aktiboki hartu ere, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko duten ereduak proposatuz.

#### **IV. DISKRIMINAZIO EZAREKIKO KONPROMISOA**

Agentziek eta hedabideek uko egin behar diote sexu-diskriminazioko jarrerak, jokabideak eta egoerak normaltzen edo sustatzen dituzten irudi eta diskurtsoak erabiltzeari. Alboratzekoak dira emakumeak gizonen mende jartzen dituzten rolak, bai eta emakumeen egoera pertsonal nahiz soziala gutxiago den iradokizunak ere. Bereziki, gutxiengo talde bateko kide diren emakumeen kasuan, diskriminazio bi-koitza edo hirukoitza ere pairatzen baitute.

#### **V. EMAKUMEAK IKUSGAI EGITEKO KONPROMISOA**

Komunikazio ez sexistak emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatu behar du nahitaez, biak ala biak agertuz informazio-iturri gisa, baita irudiak eta hizkuntza lantzean ere. Horrek esan nahi du agenda zabaltzea eta dibertsifikatzea, gizartearen esparru guztietan hainbat zeregin betetzen ager daitezen emakumeak, eta haien ekarpenak aitortu eta balioetsi daitezen.

#### **VI. DIBERTSITATEA IKUSGAI EGITEKO KONPROMISOA**

Publizitateko eta kazetaritzako mezuak lantzean, estereotipo eta genero-rolik gabe azaldu behar dira emakumeak eta gizonak; hainbat lan mota eta lanbide betetzen irudikatu behar dira, hala esparru publikoan nola pribatuan, gure gizarteko errealitatearekin bat etorritik. Era berean, agerian jarri behar da zein anitzak diren emakumeak eta gizonak adinari, azalaren koloreari, herritartasunari, genero-identitateari, sexu-joerari, gorputz motari, joera estetikoari, gaitasunei eta abarrei dagokienez.

Ez da ahaztu behar audientziako pertsonak anitzak direla, eta guztien informazio-premiak ase behar direla, bai eta haien interes ugariak ere. Bazter utzi behar dira ikuspuntu androzentrikoak; hau da, albisteak pentsatzeko eta idazteko garaian gizon (eta, zenbaitetan, emakume) eredu jakin bat hartzen dutenak erreferentziatzko subjektu bakar moduan. Horrek berekin dakar gai-zerrendan tradizioz interesgarritzat jo ez diren kalitateko edukiak sartzea: hain zuzen, zaintzari, ongizateari, emakumeen eta gizonen arrisku- nahiz segurtasun- jokabideei, osasunari eta abarrei buruzkoak.

#### **VII. ESTEREOTIPOEKIN ETA ZENBAIT BALIO, JAKINTZA ETA EZAGUERA ESKLUSIBOKI EMAKUMEEI EDO GIZONEI EGOZTEAREKIN AMAITZEKO KONPROMISOA**

Publizitateak eta komunikazioak bazter utzi behar dituzte estereotipo sexistak (sexu-objektua, laguntzaile ederra, emakume zaintzailea, etxeandrea...) eta adierazi behar dute berdin-berdin errespetagarriak eta erakargarriak direla, hala emakumeentzat nola gizonentzat, bai tradizioz «femenino» gisa jotako balio eta jakintzak (zaintza, enpatia) bai tradizioz «maskulino» gisa jotakoak (lehiakortasuna, boterea, arriskua).

Agentziak eta hedabideak gizartearen errealitateari egokitu behar zaizkio, eta dagoeneko izan diren aldaketak sustatu, konbentzionalismo eta aurreiritziak berrikusi, eta emakumeen eta gizonen berdintasunean benetan izandako aurrerabidea irudikatu (adibidez, emakumeak autoak erosi eta gidatzen dituztela eta gizonek garbiketa-produktuak erosi eta erabiltzen dituztela onarturik).

Orobat, errespetuaren eta ezagutzaren proiektzioa orekatu behar dute, erakutsiz autoritatea eta gaitasuna ez direla gizonezkoen ondare, eta saihestuz emakumeak mugatu, mendeko, anonimo eta biktima gisa irudikatzeko joera gehiegizkoa, hain kaltegarria gazte eta nerabeak gizarteratzeari dagokionez.

## **VIII. INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO KONPROMISOA**

Hedabideetan emakumeen aurkako indarkeria tratatzean, etikaz eta zehatz informatu behar da, sentikortasuna eta gizartearen gaitzespena sustatuz, indarkeria guztiz desagerrarazteko. Ez soilik indarkeria muturrekoenaren agerpenak (tratu txarrak, erailketa), baita ohikoenak eta normalduenak ere (hainbat esparrutako jazarpenak, tratu txar sotilak, mikromatxismoak, etab.), betiere, begirune berezia erakutsiz zuzeneko biktimei eta haien ingurukoei.


## **IX. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA, BAITA ENPRESA BARRUAN ERE**

Beren langileen barne-kudeaketan ere, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen lagunduko dute publizitate-agentziek eta hedabideek (hautaketa- eta igoera-prozesuak, soldaten kudeaketa, bateragarritasun erantzunkideko neurriak, lanpostuak zehaztea, zereginak banatzea...).

## **X. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUAN PRESTATZEKO ETA SENTIKORTZEKO KONPROMISOA**

Printzipio horiek babesten direla bermatze aldera, komunikazio- agentziak eta/edo -bitartekoak prestakuntzako eta sentikortzeko jardueretan engaiatu behar ditu bere profesionalak, gai izan daitezten jokabide eta erabilera sexistak identifikatzeko eta berdintasunezko ereduak proposatzeko. Aipatu diren gida-lerro guztietarako, beharrezko izango da hainbat kode ikastea: besteak beste, espazioaren eta keinuen kodea, kromatikoa, konposizioarena, grafikoa, sinbolikoa... Espezializazioa ezinbestekoa da emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteei dagokienez.





**1. ERANSKINA.  
PUBLIZITATE  
EZ SEXISTARAKO  
DEKALOGOA**



# 1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ROLA ETA IKUSGAITASUNA

- 1.1. **Erakutsi emakume eta gizonak dibertsitate osoan (\*), hainbat rol betetzen eta jokabide-eredu aniztetan, lanbide, jarrera, zaletasun eta nahiak eskubi-boki emakumeekin edo gizonekin identifikatzea saihestuz.** Horretarako, publikoa sexuaren arabera sailkatu ordez, bizimoduaren arabera sailkatzea proposatu da. (Ez ematea aditzera, adibidez, gidatzea gizonen kontua dela eta zaintza emakumeena; edo bideo-jokoekin jolastea mutilena eta panpinekin jolastea neskena).
- 1.2. **Ez erabili estereotipo sexistarik ez eta, teorikoki berdintzaile izanik, benetan ezkutuko matxismoa gordetzen duten eredurik ere.** Ez sailkatu emakumeak ama sakrifikatuaren, femme fatalearen eta abarren moduko estereotipoetan, ez eta gizonak futbola eta garagardoa beste zaletasunik ez duen inozo gisa, edo Don Juan seduzitzaile gisa, etab. ere. Horrez gain, berrikustekoak dira estereotipo sotil eta itxuraz modernoak: adibidez, superwoman (profesional, ama eta emazte perfektua) eta estetika metrosexualez jantzitako matxista.
- 1.3. **Erakutsi emakume eta gizonak, dibertsitate osoan, berdintasun-egoeran, pertsona independente eta beregain gisa.** Ez irudikatu emakumeak «halakoren emazte» gisa soilik, eta saihestu honelako esapideak: «gizon handi baten atzean, beti dago emakume handi bat»... Saihestu, halaber, emakumeak beste nahi eta borondateari moldatzea natural gisa aurkezten duten iragarkiak,aldi berean adieraziz haien bizitza ama edo emazte ona izateak zentzuzkoak duela edota horixe dela haien pozaren eta errealizazio pertsonalaren iturri bakarra. Desgaitasuna duten emakumeak biktimatzea eta umetzea baztertu behar da.
- 1.4. **Erakutsi emakume eta gizonak, dibertsitate osoan, beren eta beste pertsonen zaintzaz eta etxeko lanak egiteaz arduratzen.** Bereziki nabarmendu behar da gizonen kasuan, eta elkarbizitzako unitate berean bizi diren pertsona guztien erantzunkidetasuna azaldu. Adibidez, gizonak garbiketa- eta higiene-produktuen, elikagaien, eta haurrentzako produktuen kontsumitzaile potentzial gisa hartzea.

---

(\*) Desberdintasunaren egiturazko faktore ugariak barruan hartzen dituen terminotzat hartzen dugu «dibertsitate» terminoa: esaterako, genero-identitatea, sexu-joera, aniztasun funtzionala, gizarte maila, azalaren kolorea, jatorri nazionala, adina, sinesmenak, etab. Emakumeen kasuan, diskriminazio anizkoitza eta ikusezintasuna dakarte berekin.

- 1.5. **Erakutsi emakume eta gizonak, dibertsitate osoan, lanbide, lan mota eta lanpostu berak betetzen, haien agente maila, boterea eta gizartean duten garrantzia parekatuz.** Saihestu honelako asimetriak: gizonezko sendagilea / emakumezko erizaina, gizon botereduna / haren emakumezko idazkaria, eta gisakoak. Ez erabili beti gizonezko off-ahotsak agintea, prestigioa eta jakituria adierazteko. Ez erabili beti gizonezko pertsonaia eta ahotsak emakumeei produktuak erabiltzen erakusten dieten adituen roletan (adibidez, garbiketa-produktuetan).
- 1.6. **Erakutsi emakumeak beren emozioak eta erantzunak modu egokian kontrolatzeko gai diren pertsona moduan.** Badira jardunbide desegoki batzuk, zeinek emakumeak apatatsu eta erantzunetan zentzugabe moduan azaltzen baitizkigute, bai eta zenbait jokabide ere, emakumeen gaineko praktika bortitzak zuritzera eraman dezaketenak. Emakume manipulatzailer, anker, mendekari nahiz gutziatsuen estereotipoak erabiltzeak ere genero- indarkeriaren gaineko pertzepzioa distortsionatu dezake. Erakutsi emozioak adierazteko gai diren gizonak. Saihestu emakumeen ustezko kontrol falta erantzun bortitzen zuribide izatea.
- 1.7. **Saihestu hizkuntzaren erabilera androzentrikoa eta sexista:** hitanoaren atziki maskulino generikoaren ordezkot hautabideak baliatzea (adibidez, «Ekarri hire proposamena» erabiltzea «Ekar ezak hire proposamena»ren ordezkot, edo «gizon» hitzaren esanahi generikoa saihestea), iragarkien mezuetan emakumeak ez baztertze aldera. Ez erabili genero-markarik bi sexuek kontsumitu ditzaketen produktuak sexu bakarrari esleitzeko (adibidez, ez erabili genero-marka femeninoa garbiketa-produktuetan eta maskulinoa garagardo-iragarkietan). Saihestekoak dira honelako asimetriak: esaterako, gizonak abizenez eta emakumeak izenez deitzea, edota «gizon» hitza erabiltzea versus «neska».
- 1.8. **Baztertu emakumeen aurkako indarkeria motaren bat dakarten argudio, esamolde eta irudiak.** Saihestu emakumeen kontrako edozein indarkeria mota dakarren jokabide nahiz jarrerak erabiltzea edo justifikatzea.



## 2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN GORPUTZA ETA IRUDIA

- 2.1. **Lotu emakume eta gizonak, dibertsitate osoan, edertasun- estandar desberdinekin, arrakasta sozial eta ekonomikoa lortzearekin uztartu gabe.** Ez mugatu emakumeen bizitza-helburuak eredu estetiko jakin batzuetara egokitzeari; bereziki saihestu behar da nerabeen osasun fisiko nahiz psikikoaren gaineko presioa areagotzea.
- 2.2. **Sustatu askotariko edertasun-moldeak**, albo batera utzita gaur egungo kanoan, hainbatetan kaltegarriak osasun fisikoari eta psikologikoari dagokienez (emakumeen kasuan, gaztea, argala eta desgaitasun gabea izatea; gizonen kasuan, gihartsua izatea). Ez sustatu perfekzioan oinarritutako edertasun-eredu bat, eta ez aurkeztu gorputza zuzendu beharreko inperfekzio-eremu gisa.
- 2.3. **Erakutsi emakumeen eta gizonen gorputzak dibertsitate osoan, bazter utzita emakumea gizonaren sexualitatearen eta nahien zerbitzura edo dekorazio-objektu aldagarri, estetiko eta sexual pasibo gisa erakusten duten irudikapenak.** Ez erakutsi emakumearen gorputza publikoaren arreta erakartzeko modu gisa ez badu harremanik iragarkiko produktuarekin. Adibidez, ez baliatu emakumezko gorputzaren zenbait atalen gaineko fetitxismoa (ezpainak, hankak, oinak...) bezero potentzialen begirada eta arreta erakartzeko apeu moduan. Adibidez, saihestu nesken sexualizazioa eta hipersexualizazioa, bai eta gizarte-talde jakin batzuen; esaterako, afrikar jatorriko emakumeen hipersexualizazioa bidaien edo edari alkoholduen iragarkietan.
- 2.4. **Azaldu emakumeen gorputzari lotutako prozesuak (hilekoa eta menopausia, kasu) prozesu natural eta osasuntsu gisa. Ez azaldu emakumeak osasunari lotutako botika eta elikagaien hartzaile nagusi gisa.** Emakumeak izaki ahulak eta gaixoberak direla eta zaintza, medikamentu eta dieta bereziak behar dituztela ematen du aditzera. Ez aurkeztu emakumeen berezko prozesurik (esaterako, hilekoa eta menopausia) patologia gisa, eta ez adierazi isilik, lotsaz eta diskrezioz bizi behar direla. Ez eman aditzera emakumeak direla bi sexuek agertzen dituzten ondoeza fisikoei lotutako produktuen hartzaile potentzial bakarrak (zuntz askoko elikagaiak, hemorroideen aurkako kremak, nutrizio-produktuak...).

### 3. DIBERTSITATEA ETA DISKRIMINAZIO ANIZKOITZAK

- 3.1. **Tratatu parekide gisa pertsona guztiak, dibertsitate osoan, eta berdin egin ikusgai:** arruntean aurkeztu gizartearen talde gutxiagotuak edota diskriminatuak (biztanleriaren esparru zabalei zuzendutako produktuetan), eta ez soilik berariaz kolektibo horri zuzendutakoetan eta beren errealitateari buruzkoetan (adibidez, hainbat produktuen iragarkietan egon daitezela jatorri nazional eta etniko desberdinetako emakumeak, gizartearen errealitatearen isla moduan, eta ez soilik etorkinei zuzendutako iragarkietan).
- 3.2. **Erabili existitzen diren sexualitate ugariak islatuko dituzten mezuak,** jarrera lesbofobo, homofobo eta transfoboak adierazten dituzten edukiak baztertuta.
- 3.3. **Azaldu iragarki-mezu guztietan sexu-, genero- eta familia- aniztasuna, eta saihestu diskriminazio-jarrera oro,** heterosexualitatea eta genero-binarismoa aukera bakar edo normal gisa jotzen duen ikuspegi tradizionala gaindituta (adibidez, etxeari buruzko iragarki batean familia homoparental bat ere atera ahal dadila).



## 2. ERANSKINA. KOMUNIKAZIO EZ SEXISTARAKO DEKALOGOA



# 1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ROLA

- 1.1. Azaldu emakumeek eta gizonak jendartean betetzen dituzten zereginen aniztasuna.** Eremita eta alor guztietan sustatu emakumeen protagonismoa. Albisteen edukia zabaldu eta dibertsifikatu behar da, emakumeak gaur egungo gizartean guztiz integratuak dauden pertsona gisa egiteko ikusgai, ez zeregin jakin batekin soilik. Era berean, esparru, zeregin eta jarrera anitzetan azaldu behar dira gizonak, maskulinitasuna boterea, lehiakortasuna eta oldarkortasunaren gisako balioei lotzea saihestuz.
- 1.2. Dibertsifikatu iturri gisa kontsultatzen diren adituak, emakumeak rol horretan apenas agertzeraren daramaten inertiak berrikusiz.** Adibidez, alboratu solaskide moduan beti instituzioen hierarkiaburuak erabiltzeko ohitura (unibertsitateko dekanok eta katedradunak; egunkari-zuzendariak,...), hala, emakume eta gizonak beren ezagueren arabera kontsultatzeke aukera zabalduz, eta ez haien karguen arabera (gai jakin bati buruz ikertzen duten akademia- kideak, kazetari espezializatuak, etab.).
- 1.3. Erakutsi emakume eta gizonak, dibertsitate osoan, lanbide, lan mota eta lanpostu berak betetzen, haien aginte maila, boterea eta gizartean duten garrantzia parekatuz.** Saihestu honelako asimetriak: gizonetzko sendagilea / emakumezko erizaina, gizon botereduna / haren emakumezko idazkaria, eta gisakoak. Tradizioz emakumeei egotzitako ezaguera, lan eta jarreraren aitormena sustatzea.
- 1.4. Erakutsi emakumeak eta gizonak, dibertsitate osoan, beren eta beste pertsonen zaintzaz eta etxeko lanak egiteaz arduratzen.** Bereziki nabarmendu behar da gizonen kasuan, zaintzan engaiatu daitezten, eta elkarbizitzako unitate berean bizi diren pertsona guztiak erantzunkide izatearen beharra erakutsi behar da. Pertsonen zaintzak bizitzaren beste esparru eta sektoreak mantentzeko duen garrantzia eta horien arteko erlazioa azaltzea.
- 1.5. Saihestu estereotipo sexistak, bereziki, baztertzailak eta iraingarriak direnak.** Albisteen edukiek emakumeen irudi orekatua eta estereotiporik gabea lortzen lagundu behar dute (biktima/sexu- objektu/ ama sakrifikatu...), bai eta gizonena ere (playboy-andrekoi/garaile/heroi...).

- 1.6. Erakutsi emakumeak eta gizonak, dibertsitate osoan, zeregin desberdinak betetzen eta jokabide-eredu eta izaera-ezaugarri anitzekin.** Saihestu lanbide, jarrera, zaletasun eta nahiak esklusiboki emakumeekin ala gizonekin identifikatzea, bai eta feminitate eta maskulinitasun eredu tradizionalak transmititzea ere. (Emakume gozoak/gizon oldarkorrek; emakume zaintzaileak/gizon hornitzaileak, etab.).
- 1.7. Elkarrizketa eta artikuluetan, tratatu pareko gisa emakume eta gizonak.** Kontu hartu ea emakumeei gizonei inoiz egingo ez genizkiekeen galderak egiten ari gatazkiezen (adibidez, emakumezko ministro bati amatasuna bateratzeko nola egingo duen galdetzea) eta alderantziz (adibidez, gizonezko politikari bati futbolari buruz galdetzea, gizona denez horregatik interesa duela usterik aurrez).
- 1.8. Hautsi emakumeak biktimatzen joerarekin. Tragediak ez du emakume aurpegi soilik.** Saihestu hondamendi naturaletan, gatazka armatuetan eta abarretan beti emakume sufritzaileen irudi eta lekukotzak erabiltzeko joera. Agerian utzi, halako albisteetan, emakumeak ez direla biktima babesgabeak soilik: gizarte-eragile aktiboak ere badira (adibidez, aktibistak). Aldiz, positiboa da hondamendi, tragedia edo gatazka berak emakumeen eta gizonen bizitzetan, bai eta gizarte talde jakin batzuetan ere (haurrak, adinduak, etorkinak, etab.), izandako eragin desberdinari begiratzea. Bereiztekoak dira, batetik, norbait biktima gisa aitortzea eta, bestetik, pertsona hori berriz biktimatzea (haien sufrimenduan gelditzea, indarkeriari eta bidegabekeriari aurre egiteko duten gaitasuna erakutsi gabe).
- 1.9. Aintzat hartu zer eragin izango duen jokabide jakin batek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeari edo aurkatzeari dagokionez.** Emakumei egozitako irudi sozialak eragina izan dezake datozen belaunaldien jardunaren, autostimuaren eta abarren mailan. Gizarte mailako arrakastari lotutako maskulinitasun eta feminitate irudiek bereziki eragingo dute haien balio eta lehentasunetan. Oinarritzakoa da erreferente anitzak ematea: hedabideetan apenas agertzen badira emakumezko kirolari profesionalak, politikariak edo musika-kritikariak, eta ez bada agertzen haurren nahiz adinduen zaintzara emandako gizonik, mugatu egingo ditugu gazteek beren etorkizuneko lanbidea tradiziozko rola alde batera utzita irudikatzen auzerak.

## 2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN IKUSGAITASUNA

- 2.1. **Zuzendu albisteetan gizonak subjektu aktibo gisa azaltzeko joera gehiegizkoa.** Eman garrantzi paritarioa gai eta sektore feminizatuei eta maskulintoei. Adibidez, krisi ekonomikoari buruzko informazioetan, jarri arreta sektore feminizatuetan izan duen eraginean ere: mendekoen zaintzaileengan edota etxeko langileengan, kasu.
- 2.2. **Jarri agerian emakumeek dituzten zailtasun eta arazoak eta gizartean betetzen duten zeregin funtsezkoa.** Eman emakumeen eskubideen aurkako politika eta ekintzen berri, bai eta misoginia elikatzen duten espazio publikoko diskurtso eta jarreraren berri ere.
- 2.3. **Eman garrantzi eta ikusgaitasun paritarioa emakumeak eta gizonak protagonista diren albisteei, espazioaren banaketari eta orrian duten kokaguneari dagokionez (ordena, atala...).** Adibidez, Joko Olinpikoen berri ematean, eman antzeko protagonismoa emakumezkoen eta gizezkoen kategorietako emaitzei, edo emaitzak kirol mailan duen garrantziaren arabera izan dadila protagonismoa, eta ez gizezkoen kirola lehenesteko joeraren baitakoa.

## 3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN GORPUTZAETA IRUDIA

- 3.1. **Saihestu emakumearen gaineko ikusmoldea distortsionatzen dituzten fisikoari, erakargarritasun sexualari edo janzkerari buruzko aipamenak.** Baztertu esparru publikoan duten posizioa dela- eta albiste diren emakumeak estetikoki epaitzeko joera, gizei egiten ez zaiena (adibidez, emakumezko politikarien arropari buruzko oharrak, edota aktore bati elkarrizketa batean, gizezkoari egingo ez litzaizkiokeen komentario morbosoa egitea emakumezkoari).
- 3.2. **Erakutsi emakumeen eta gizonen gorputzak dibertsitate osoan, bazter utzita emakumea audientziaren sexualitatearen eta nahien zerbitzura edo deko-razio-objektu aldagarri, estetiko eta sexual pasibo gisa erakusten duten irudikapenak.** Emakumeen gorputza ez da albisteak irudiz janzteko apaingarri gisa erabili behar. Albisteak irudiztatzeko emakume eder nahiz erdi-biluzien irudiak aukeratzea, ez irudiak albistearekiko duen garrantziarengatik, baizik eta audientzia gehiagotuko duela pentsatuta; halako jardunbideek kazetaritza-prinzipio bat urratzen dute: kazetaritzaren kalitatea enpresen interesen mende ez jartzearena.

**3.3. Sustatu askotariko eta perfektzioan oinarritu gabeko edertasun- moldeak,** albo batera utzita gaur egungo kanonak, hainbatetan kaltegarriak osasun fisiokoari eta psikologikoari dagokienez (emakumeen kasuan, gaztea, argala eta desgaitasun gabea izatea; gizonen kasuan, gihartsua izatea). Hau da, ikusgai egin nagusi den kanonarekin (emakumeen kasuan, gaztea, argala, femeninoa estetikaz, eta desgaitasun gabea) bat ez datozen gorputzeko pertsonak. Telebistan, horrek zera esan nahi du: kameraren aurrean agertzen diren profesionalei (berriemaile, aurkezle, etab.) eta elkarrizketatuei feminitate- eta maskulinitasun-eredu hertsiei lotutako mandatu batzuk betetzeko eskatzen bazaie, zuzentzekoa dela jardunbide hori. Saihestekoak dira jardunbide hauek ere: argazki-erreportaje batean emakumeen gorputza gehiago nabarmentzea, arropa sexia jantzi dezatela edo modu seduzitzailean jarri daitezela iradokitzea (gizonezkoei ez zitzaielarik halakorik eskatuko), osagarri femeninoak eta beharrik gabeko makillajea eraman ditzatela exijitzea, etab.

## 4. HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ SEXISTAK

**4.1. Aintzat hartu zein garrantzitsua den hizkuntza balioak transmititzeko tresna gisa: beharrezkoa da ahalegin guztia jartzea hizkuntza ez-diskriminatorioa, emakumeak ikusezin bihurtuko ez dituen, erabiltzean.** Gomendagarria da maskulino generikoaren ordezkotako hautabideak sustatzea (adibidez, «maisu-maistrak» edo «jaun-andreak») erabiltzea, maskulino soilaren ordez). Hala ere, ez erabili -sa atzikia «aktorea», «alkatesa», «langile» eta gisako hitzak sortzeko («aktore», «alkate», «langile», etab. generikoak dira jada).

**4.2. Erakutsi emakume eta gizonak pertsona independente eta beregain gisa, hizkuntzaren erabileraren bitartez.** Bazter utzi emakumeak gizonen mendeko edo ondasun gisa irudikatzen dituzten esamoldeak. Ez da gomendagarria gizon batekiko duten ahaidetasun- harremanaren arabera identifikatzea emakumeak; beharrezkoak ez badira, saihestu egin behar dira ahaidetasunari buruzko aipamenak. (adibidez, emakumea berez bada ospetsua, «halakoren alaba» edo «halakoren emazte») gisa izendatzen jarraitzea; gogoan izan Pénélope Cruz eta Estrella Morente).

**4.3. Ondo identifikatu hizpide diren pertsonak, haien lanbideak eta karguak. Saihestu albisteen tratamenduan gehiegizko konfiantzaz jokatzeko.** Saihestu emakumeak haien izen osoa erabili gabe aitatzeko joera nagusia (adibidez, emakumezko eledun baten adierazpenak jaso eta haren izenik ez ematea) eta baita hedabideetan beren errekonozimendu publikoaz azaltzen direnean ere emakumeak ponte izenez aipatzekoa. Saihestu gizonak abizenez eta emakumeak izenez aipatzearen gisako asimetriak (Rajoy/Soraya; Pénélope/Bardem).



- 4.4. Kontu jakintzat hartu emakumeek gizarteko talde eta kolektibo desberdinetan parte-hartzen dutela, eta ez izendatu kolektibo berezi eta unitario gisa.** Emakumeak biztanleen erdia baino gehiago dira. Hala eta guztiz ere, ohikoa da hedabideetan «beste kolektibo bat» balira bezala aipatzea emakumeak: adinduak, etorkinak, sindikalistak, emakumeak... Ikusmolde horretan, badirudi emakumeak ez direla gizartearen talde ugarien erdiak, beste talde berezi bat baizik; horrela, gainera, ikusezin egiten da badirela emakume adinduak, etorkinak, sindikalistak etab. ere. Saihestekoak dira honelako ikuspuntuak: «emakumeen botoa erabakigarria izango da», zeinak agerian uzten baitu «gizonezkoen botoa» jotzen dela estandartzat; bai eta «kirola / emakumezkoen kirola» moduko adierazpideak, unibertsal eta neutrotzat aurkezten baitute maskulinoa.

## 5. GENERO-IKUSPEGIA ETA IKUSPEGI INKLUSIBOA

- 5.1. Albisteetan genero-ikuspegia sartzearen alde egin, aintzat harturik horrek kazetaritzako interpretazio- eta azterketa-lana areagotu dezakeela.** Hau da, aztertu errealitate sozial batek emakumeen edo gizonen artean duen eragin desberdina, eta behatu eta jakinarazi orobat nola baldintzatzen dituen sexismoak errealitate sozialak (adibidez, esan nola Mendekotasun Legean izandako murrizketak eragin handiagoa izan duen emakumeengan, emakumeak baitira mendeko pertsonak zaintzeko ardura duten gehienak; edo aztertu zer-nolako harremana dagoen trafiko istripuen eta gizonezkoen jokabide arriskutsuen artean). Hala jokaturik, ez dira alboratuko emakumeei, gizarte-kokagune desabantailatsuagoan egoteagatik, eragiten dieten diskriminazio eta inguruabar espezifikoak; halaber, sozializazio matxistak gizonen bizitzan zer- nolako eragina duen inguruko gogoeta sustatuko da.
- 5.2. Gurutzatu genero-ikuspegia diskriminazio sozialaren beste elementu batzuekin.** Kazetaritzako ikuspuntuaren aberasgarri da «nori eragiten dio errealitate honek» galdera «gizonak» eta «emakumeak» kategorietara ez mugatzea, eta azterketan desberdinkerien egiturazko beste faktoreak sartzea: adina, genero-identitatea, sexu-joera, aniztasun funtzionala, gizarte maila, jatorri nazionala, azalaren kolorea, etab. Emakume eta gizonak homogeneousatzeko joeraren aurka, zehatz mehatz aritzea gomendatzen da, hainbat diskriminazio-faktoreen arteko gurutzagunean dauden pertsonen egoera zehatza aztertzeko eta horren berri emateko. Adibidez, adindu homosexualei buruzko erreportajeak, preso dauden transexualen eskubideei buruzkoak, desgaituen ugalketa-eskubideei buruzkoak, Atzerriartasun Legearen azken erreformak emakumezko etorkinen gain izandako eraginari buruzkoak, etab.

**5.3. Erabili existitzen diren sexualitate ugariak islatuko dituzten mezuak.** Ez erakutsi heterosexualitatea eta genero-binarismoa aukera bakarra edo "normala" balitz bezala. Horrek berekin dakar jarrera lesbofobo, homofobo eta transFOBikoak saihestea eta salatzea, baina baita egunerokotasunean heterosexualak ez diren edota sexu- genero sistema binarioarekin bat ez datozen gorputzeko pertsonak ere ikusgai egitea (transexualak, transgeneroak, intersexualak). Adibidez, ez jo alde aurretik elkarrizketatua heterosexualtzat (ez galdetu «mutil-» edo «neska-lagunen» inguruan, baizik eta bikoteen inguruan...), eta ez nabarmendu uneoro pertsona baten transexualitatea, ez bada albisterako garrantzitsua (adibidez, ez aipatu Lana Wachowski zinema-zuzendaria «Lana Wachowski zuzendari transexual» gisa haren azken pelikulaz hitz egitea bada asmoa).

**5.4. Arruntean egin ikusgai gizarte-talde gutxiagotuak edo diskriminatuak, ez soilik haien errealitateari buruzko eduki berezietan.** Emakumeen kasuan, «emakume zientzialariak», «emakumeak kirolean» eta horrelako erreportaje espezifikoak egiteko joeraren ordez, sartu emakumea modu normalduan zientziari eta kirolari buruzko edukietan. Era berean, normaltzekoa da emakume eta gizon etorkinen presentzia, bai eta adinduena, homosexualena, transexualena, desgaituena, etab. gai mota guztietan, halakoak hedabideetan beren etorkin-, adindu-, homosexual-, transexual- errealitate jakin bati buruz hitz egiteko besterik ez agertzeko joerari aurre eginez.



# 3. ERANSKINA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INFORMAZIO- -TRATAMENDURAKO DEKALOGOA



## HITZAURREA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 50. artikuluan definitzen du genero-indarkeria: «*sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitea-ekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan*».

Horretaz gainera, lege horren 26. artikuluan, «*emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten edukiak*» zabaltzea debekatzen zaie Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan jarduten duten komunikabideei.

Bestalde, Delituen Biktimen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legeak zabaldu egiten du biktimaren kontzeptua, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak ezarritakoa (genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzko lege organikoa). Emakumea hilik gertatzen ez den kasuetan, seme-alaba adingabeak biktimatzat hartzen dira. Lege berriaren 2. artikuluan, emakumea hilik gertatzen denerako, seme-alaba adingabeez gainera, honako hauek ere biktimatzat hartzen dira:

- Biktimaren seme-alabak edo haren ezkontidearenak (betiere, legez bananduta ez bazeuden eta elkarrekin bizi baziren).
- Emakumearen ama eta aita.
- Emakumearen zaintzapean dauden hirugarren mailara arteko senideak, eta haren tutoretza, kuradoretza edo familia-harrerapean daudenak.

Komunikabideek kontuan hartu behar dute biktimak, biktimak izategatik, beti egongo direla egoera zaurgarrian, eta egoera hori areagotu egin daitekeela argitaratzen diren datuekin biktimak identifikatzea errazten bada. Delituen biktimen Estatutuari buruzko Legeari esker, epaileek eta epaimahaiek debekatu egin dezakete biktimen identitateari buruzko informazioa eta, zuzenean edo zeharka, biktima identifikatzen duten datuak zabaltzea edo argitaratzea, eta biktimaren edo haren senideen irudiak lortu, zabaldu edo argitaratzea.

Herritarrek informatuta egoteko duten eskubidea baliatzeari uko egin gabe, kazetariak errespetatu egin beharko dute biktimek beren bizitza pribatua eta intimoan inor ez sartzeko duten eskubidea eta komunikabideetan bizitza pribatuaren eta intimoaren berri ez emateko eskubidea (aurrez baimenik eman ez bada, behintzat). Emakume baten kontrako delitu bat gertatzen denean, emakumearen eta haren inguruko lehentasuna (legez biktimatzat jotzen direnena) ez da izaten komunikabideetako edukiak kontrolatzea; horregatik, komunikabideetako profesionalak, duten konpromiso etikoa betez, kontu handiz arituko dira mina ez aragotzeko.

# 1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INFORMAZIO-TRATAMENDUA

**1.1. Terminologia egokia erabiltzea, emakumeen aurkako indarkeriaren berri emateko.** Termino batzuk erabiltzeari esker, jakinarazten diren kasu zehatz guztiak emakumeen aurkako indarkeria deiturikoaren barruan koka daitezke. Aldiz, beste termino batzuk erabilia, ez zaio erreferentziarik egiten emakumeen aurkako indarkeriari, beste indarkeria-forma batzuk izendatzen baitituzte, gizonek emakumeen gain –emakume izate hutsagatik– baliatzen duten indarkeriaz bestelakoak direnak. Beraz, honelako terminoak erabiliko dira: emakumeen aurkako indarkeria, indarkeria matxista, gizonek emakumeen aurka baliatzen duten indarkeria. Aitzitik, termino hauek ez dira erabili behar: etxeko indarkeria, familia-indarkeria, familia barruko indarkeria, bikotekideen arteko indarkeria.

**1.2. Emakumeen kontrako indarkeria testuinguruan jartzea, eta zer den azaltzea.** Beharrezkoa da nabarmentzea zein den emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria: emakumeek, emakume izate hutsagatik, gizonen aldean pairatzen dituzten egiturazko desberdintasunak. Emakumeen aurkako indarkeria, bere forma guztietan, desberdintasun horien adierazpen latzena da. Horregatik, eta interes orokorrari begira, egiturazko desberdintasun hori nabarmenduz egin behar dugu albistearen diskurtso osoa, eta inoiz ez gertaera, kasu edo gertakari isolatu bat balitz bezala. Hala, informazioaren kontakizunak continuum gisa erakutsiko digu emakumeen aurkako indarkeria, eta ez gertakari isolatu gisa, hots, emakume jakin batek sufritutako azken kasua bezala.

Kasu zehatz bakoitza emakumeen aurkako indarkeriaren barruan kokatuta, lagundu egingo dugu emakumeen aurkako indarkeria osotasunean ikusarazten, egiazki ulertzen zer den emakumeen aurkako indarkeria eta indarkeria mota horrek zer dakarkien indarkeria jasaten duten emakumei eta haien familiei, gizartea sentsibilizatzen, eta, ondorioz, gaitzespen sozial eta politikoiari irmo eusten. Emakumeen aurkako indarkeria testuinguruan kokatzeko, azaldu egin behar da zer den emakumeen aurkako indarkeria, zeintzuk diren emakumeen kontrako indarkeriaren kausak, nola identifika dezakegun indarkeria mota hori, nola gertatzen den (hau da, zer indarkeria-modu balitzen duten emakumeen kontra), eta zer egoeratan dauden kasu horietan indarkeria jasaten duten beste batzuk, hala nola emakume horien seme-alabak.

**1.3. Emakumeari buruzko informazioa, eta indarkeria jasaten duten beste batzue-  
na.** Ematen diren datuak lagungarri izan behar dira aurreko puntuari adierazi-  
tako interes orokorrerako: indarkeria testuinguruan kokatzea, haren kausak  
azaltzea, gaitzespen soziala bultzatzea eta indarkeria jasaten ari diren beste  
emakume batzuei egora horri aurre egiten laguntzea.

Ematen diren datuetan bermatu egin behar da bete egiten direla indarkeria  
horren biktime guztien eskubide guztiak. Biktimak nor diren zuzenean edo  
zeharka jakiten laguntzen duten daturik ez da emango (adingabeak badira,  
berezi). Horretarako, interes orokorrekoak diren datuak baino ez dira eman-  
go, biktimei eta haren ingurukoei dagokienez.

Indarkeria jasaten duen emakumeak lehenagotik duen egoera judizialari  
buruzko informazioa kontu handiz eman behar da, iritzi publikoak ez diezaion  
emakumeari egotzi errua (salaketarik jarri ez zuela esaten bada) edo beste  
emakume batzuk adoregabetezko izan ez dadin (salaketak jarrita zeudela esa-  
ten bada). Egokiago da erasotzaileak lehenagotik zuen egoera judiziala aipa-  
tzea (ea urruntze-agindurik zuen, kondenatua izan den, etab.), datozen pun-  
tuetan planteatzen den bezala. Ematen diren informazioetan, emakumeen eta  
beste biktime batzuen ekintza bat ere ez baliatu behar tratatu txarren emailearen  
jokabidea zuzitzeko edo emakumeen ekintzak tratatu txarrekin lotzeko.

Beste datu batzuk ere interes orokorrari erantzuteko tratatuko dira (adibi-  
dez, lanbidea, nazionalitatea edo hezkuntza-maila).

Eraildako emakumearen bizitza-historia bat egitea baliagarria izan daiteke,  
baldin eta ondo erabilia badago eta lan on bat egiteko adina denbora uzten  
bada. Horrelako ariketa batek emakume horiengana hurbil gaitzake, eta gizar-  
tearen kondena handiagoa lor dezake, emakume horiekiko sentitu dezakegun  
enpatia dela-eta. Informazio mota horiek ematerakoan, emakumeen jokabidea  
ez da inoiz ere erabiliko sufritu duten indarkeria zuzitzeko. Teknika hori baliat-  
zeko, beharrezkoa da familiak baimena ematea, eta kontuan hartzea ea se-  
me-alaba adingaberik baden eta informazio horrek nola eragin diezaiekeen  
onertze-bidean. Garrantzitsua dela indarkeria-ziklotik ateratzea lortu duten  
emakumeen istorioen berri ematea.



**1.4. Erasotzaileari buruzko informazioa.** Erasotzailearen errugabetasun-printzipioari eutsi behar zaio haren aurkako epairik ez den bitartean, oinarrizko eskubide bat denez gero. Erasotzailearen daturik ez da zabalduko, baldin eta datu horiekin biktimak nor diren zuzenean edo zeharka jakiten laguntzen bada (adingabeak bada, bereziki). Erasotzailearen datu pertsonalak emanez gero (adina, lanbidea, nazionalitatea edo hezkuntza-maila), testuinguruan kokatuko dira.

Erasotzailearen jokabidearen berri emateak, jokabide hori testuinguruan kokatuz, gizon horiek nola jokatzen duten jakiten lagunduko du. Horrelako informazioek beste emakume batzuk eta haien ingurukoak ohartarazteko balio dezakete, emakume horiek jakin dezaten ea indarkeria jasaten ari diren eta nola jokatzen duen erasotzaileak. Horrez gainera, gizon horien portaera berritza salbuesten edo arintzen duten mito hutsalgarri eta zuritzaileak alde batera uzten erraztuko du horrek. Horren haritik, funtsezkoa da erasotzailearen edo haren ingurukoaren kontakizuna ez jartzea indarkeria jasaten duen emakumearen kontakizunaren gainetik. Erasotzailearen adierazpen errugabetzaileak ere saihestu egingo dira.

**1.5. Kasu bakoitzaren inguruabarrei buruzko informazioak.** Garrantzitsua da halako informazioen berri ematea; izan ere, informazio horrek laguntzen du, batetik, kasu zehatz bakoitza emakumeen aurkako indarkeria kontzeptuaren barruan kokatzen, eta, bestetik, indarkeria jasaten duten emakumeek eta haien ingurukoek agertzen dituzten jarrera desberdinen berri ematen. Horregatik, erasotzailea salatzen dutenak indarkeria jasaten duten emakumeak izan ohi direla erakutsiz gero, emakumeak beren bizitzaren eragile gisa ikusaraziko ditugu, indarkeria-ziklotik ateratzeko behar den aldaketaren eragile gisa. Haatik, salaketarik ez jartzeak ez du esan nahi emakumea arduragabea denik edo horretarako interesik ez duenik; beraz, emakumeei ez zaie leporatu behar beren egoeraren errua eta erantzukizuna. Kontu handiz jokatu behar da erasotzaileen eta erasotuen arteko «salaketa gurutzatuen» kasuan.

Garrantzitsua da, halaber, albisteetan erasotzailearen aurrekariari buruzko informazioa ematea (kondenarik nahiz urruntze-agindurik dagoen, urratzerik egoten ote den,...), lagungarri izango baita zigortutako erasotzailearen jokabidea ezagutzera emateko eta egoera testuinguruan kokatzeko.

Bestalde, garrantzitsua da azaltzea ezen, erasotzailearen azken ekintza – hedabideak kontaktzen ari direna– emakumeak erasotzailea bere bizitzatik urruntzea erabaki duenean gertatzen dela, normalean. Horrenbestez, baliagarri izan daiteke beste emakume batzuk eta haien ingurukoak erne egon daitezen eta sentitu dezaten gauzago direla erakunde eta elkarteetatik laguntza jasotzeko, eta, hala, indarkeria-zikloa atzean utzi, duintasuna berreskuratu eta haien bizitzak berregiteko.

### **1.6. Kasuen jarraipen informatiboa egitea, denboran zehar: epaketak eta epaiak.**

Garrantzitsua da denboran zehar kasuon jarraipen informatiboa egitea. Izan ere, epaketan berri eman ez eta erasotzaileen aurka emandako epaiak jakinaraziz, halako jokabidek zer ondorio dituzten ikusarazten lagunduko dugu. Hori erreferente bihur daiteke beste erasotzaile batzuentzat, justiziaren eta gaitzespen sozialaren pisuaz ohartu baitaitezke. Baina halako datuak lagungarri izan daitezke, batez ere, indarkeria jasaten duten beste emakume batzuek babes instituzionala, juridikoa eta soziala senti dezaten. Horregatik, garrantzitsua da erasotzaileak ekintza bortitzak zuzitzeko egindako azalpenak ez errepikatzea, eta oinarritzkoa, epaketan kontu handiz aritzea, erasotzailearen eta haren ingurukoaren iruzkin eta lekukotzen berri ematerakoan.

### **1.7. Informazio osagarriak ematea, emakumeen aurkako indarkeria ezagutarazten laguntzeko. Informazioak ondo azalduta emango dira.**

Garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria eta haren bilakaera testuinguruan kokatzen laguntzen duten informazioak argitaratzea. Hau da, emakumeen giza-eskubideen urraketa krudel hau osotasunean ezagutarazten laguntzen duen informazio oro, jokabide horren gizarte-gaitzespen soziala areagotzen lagunduko duena. Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikerketa-erreportajeak egiteak indarkeriari buruzko ikuspegi global bat izaten lagunduko du, eta gizarteak horri buruz duen ezagutza hobetzen. Halakoetan, beste tratamendu bat eman daiteke, albiste-errutinek markatutakoaz bestelakoa.

Eraildako emakumeei buruzko estatistikak ez gehiegi erakutsi. Eraildako emakumeei buruzko zenbaki-datuak soilik eta sistematikoki ematea errutina bihur daiteke, eta bihozgabatu egin dezake iritzi publikoa. Beraz, albisteak beste estatistika eta txosten mota batzuekin osatuko dira: erasotzaileen kontrako epai judizialak, jarritako salaketak, emandako urruntze-aginduak, emandako babes-aginduak, nortzuek jartzen dituzten salaketak, indarkeriaren zikloa gainditu duten emakumeak, euren bizitzen eragile diren emakumeak, erakundeek zenbat emakume artatu dituzten, indarkeria jasaten duten emakumeentzat erabilgarri dauden baliabideak, eta garrantzitsuak izan daitezkeen beste txosten eta estatistika.

Hedabideak zenbait informazio osagarri prestatzen saiatuko dira urtero, emakumeen aurkako indarkeria kasu zehatzez aparte. Hori guztia lagungarri izango da indarkeria jasan ondoren biktima izateari utzi dioten emakumeak ikusarazteko, indarkeria jasaten ari diren emakumeentzat mezu positibo bat eskaintzeko, gizarteari mezu positibo bat eskaintzeko (indarkeria-mota hori saihestezintzat edo gaindiezintzat hartu ez dadin), emakumeen aurkako indarkeria zertan datzan argiago erakusteko, eta dauden jardueren eta baliabideak erakusteko eta ezagutarazteko.

**1.8. Informazio erabilgarria ematea, indarkeria jasaten duten emakumeentzat eta haien ingurukoentzat.** Erabilgarri dauden baliabideei buruzko informazioa, helbideak eta telefono-zenbakiak ematea funtsezkoa da horiek azkar eta eraginkorki baliatu ahal izateko eta, hala, aholkularitza, ostatua, orientazioa eta laguntza jasotzeko. Hedabide mota guztietan, informazio interesgarri hauek argitaratuko dira: indarkeria jasaten duten emakumeentzat dauden arreta-telefonoak, indarkeria jasaten duten emakumeek eta haien ingurukoek baliatuz ditzaketen helbideak eta posta elektronikoak, eta erabilgarri dauden baliabideak.

**1.9. Informazio-iturri adituak erabiltzea, emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko ezagupena dutenak.** Funtsezkoa da informazio-iturri adituengana jotzea, bai albiste izan daitekeen gertaera zehatzaren berri ahalik eta egitasun handienaz jakiteko, bai jakinarazten den gertaerari buruzko datu zehatzak ulertarazten laguntzeko, azalpen argigarrien bitartez. Haatik, dekalogo honetan ezarritakoaren ildotik eta hedabideek adierazi duten ezintasuna dela-eta (datuak eskuratzeko ezintasuna, informazio-mota hauek ahalik eta denbora laburrenean prestatzeko), ulergarria da zenbaitetan informazio-iturri ez-adituengana jotzea (familia, bizilagun eta lekukoengana). Halakoetan, lekukotza horiek zuhurtasunez eta profesionaltasunez erabiliko dira beti, emakumea berriz ez biktimizatzeke eta erasotzailearen jokabidea ez zurrizteke.

**1.10. Baliabide grafikoak eta ikus-entzunezkoak, emakumeen aurkako indarkeria ikusarazten eta salatzen laguntzeko.** Beti saihestu behar dira emakumea eta indarkeria jasaten duten gainerako biktimak identifikatzea errazten duten irudiak (biktimarenak, ingurunearenak, senideenak, ...).

Funtsezkoa da biktimen identitatea eta segurtasuna babestea, hil ez diren biktimen kasuan. Inoiz ere ez da esan behar non dauden (etxean, harrera-etxetan...).

Biktima zuzenean edo zeharka identifikatzen uzten duten irudiak argitaratzeko, identitatearen berri emateko baimena berriaz eman behar du biktimak berak (hil ez badute) edo, emakumea hil egin dutenean, biktimaren senideek (zeharkako biktimatzat jotakoek). Baimen horiek gabe inoiz ere ezingo da horrelako irudirik argitaratu.

Hala ere, baimena izanda ere, kontuan hartu behar da seme-alaba adingaberik baden eta aztertu egin behar da irudi edo informazio horiek zer nolako eragina izan dezaketen seme-alaben identifikazioan edo oneratzean; izan ere, biktima horiek bereziki zaurgarriak dira, eta babeserako eskubide berezia dute.

Sare sozialetatik eta internetetik hartutako irudiak izanez gero, beharrezkoa da berariazko baimena izatea argazkiok erabili ahal izateko. Kontuan hartu behar da pertsona batek sare sozialetan eskegitzen dituen argazki gehienak astialdiarekin lotuta egoten direla (oporrak, jaiak, etab.). Argazki horiek erailketaren albistearekin argitaratuz gero, biktimak identifikatzen ez ezik, gertakari bortitz bat hutsaltzen ere laguntzen da. Horrelako argazkiren bat argitaratzekotan, bizitza-historia baterako izan behar litzateke (argazkiak biktimari buruz hitz egiteko baliatu, ez haren erailketari buruz hitz egiteko).

Baliabide gisa, gogoan izan garrantzitsua dela infografiak erabiltzea, bai emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistikei buruzkoak, bai emakume eta gizonen egiturazko desberdintasun-egoerei buruzkoak.

Erabilitako irudiek beti errespetatu behar dute eraildako emakumearen duintasuna eta haren ingurukoena, eta balio behar lukete agerian uzteko emakumeen aurkako indarkeria egitura-arazo bat dela eta gure gizarte osoak hartu behar duela horren ardura. Horretarako, ezertan eragotzi gabe informazioa izateko eskubidea, hedabideek ez dute erabili behar morboa elikatuko duen irudirik (eraildako emakumearen hilotza, arma hiltzailea, odol-orbanak, ...).

Funtsezkoa da, halaber, gaitzespen-kontzentrazio eta -ekitaldien argazki, irudi eta audioak aurkezten jarraitzea. Indar osoz eutsi nahi zaio emakumeen aurkako indarkeriarekiko eta berori gauzatzen dutenekiko gaitzespen sozialari eta «zero tolerantzia» joerari. Gomendio horretan, beti saihestu beharko dira aurrez eraildako emakume jakin batzuk berriz identifikatu ditzaketen artibo-materialak, salbu eta familiartekoez berariaz baimena eman badute horretarako.